



#lotsarigabe
praktikatu gurekin

Izan zaitez berbalagun, mintzalagun, mintzakide...
Izena emateko: www.praktikatu.eus



ZER DA MINTZALAGUN?

Mintzalagun programak euskaraz dakiten pertsonak (bidelagunak) euskara ikasten ari direnekin (bidelariak) elkartzen ditu astean ordubetez euskaraz hitz egin dezaten.

ZER LORTZEN DUGU?

> **Bidelariak:** euskaraz hitz egiteko aukera du, bertako hizkera ezagutu eta ikasteko; jendea ezagutzeko eta euskaraz aritzeko harreman-sarea zabaltzeko aukera du.

> **Bidelagunak:** ikasten ari direnei lagundu, bertako hizkera erakutsi, egiten ari diren ahalegina saritu eta aitortu...

Mintzalagunak astero elkartzen dira 3, 4 edota 5 laguneko taldetan, euskaraz aritzeko. Hori osatzeko, ikasturte hasieran eta amaieran ekitaldi bana egiten dugu (hitzaldi, diaporama, ipuin emanaldia...). Horrekin batera, irteerak ere egiten ditu udaberri aldera (Zumaiako flyscha, txakolindegira bisita, Azpeitiko Tren Museora) eta eskualdeko kultur emanaldietara joateko sarrerak zozketatzen ditugu mintzalagunen artean (antzerki, kontzertu...).

IZENA EMATEKO

Urola Kostako euskaltegietan edo zure herriko Euskara Zerbitzuan.

 **625 485 215**

 www.mintzalagun.blogspot.com

 urolakosta@aek.org

 [mintzalagunak gara](#)

Sustatzaileak

